

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN KASUETARAKO BALIABIDEAK MUNGIAN

Leitekeena da zu edo zure inguruko emakumeren bat egoera honeetako baten egotea.

Gorde liburuxka hau!

Bertan zehazten dira eskuragarri dagozan baliabideak.

**AHAL DOZUNEAN, irakurri
ARRETA HANDIZ.**



**MUNGIA
UDALA**



Presidentetza, Gorteekiko Harremanak eta Bardintasun Ministeriotik jasotako kredituen kontura finantzautza, Bardintasunerako Estatu Idazkaritzaren bidez

**GOGOAN EUKI:
LARRIALDI KASUETAN DEITU
112
TELEFONORA (SOS DEIAK)**

Zer da emakumeen kontrako indarkeria?

Gizonek emakumeen kontra emakume izate soilagaitik erabilten daben indarkeria da, emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-desbardintasun arazo baten ondorioz.

Definizinoa jasota dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean:

“Lege honen ondoreetarako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.

Bikotekideen arteko indarkeria, era guztietan, salatu beharreko DELITUA da. Ha-ta guzti be, hainbat ikerlanen arabera, emakumeek 7 eta 10 urte bitartean behar ditue salaketa egiteko, batez beste. 1980an, Nazio Batuen Erakundeak autortu eban emakumeen aurkako indarkeria dala ezkutuko krimenik ohikoena munduan.

Zer da indarkeriaren zirkulua?



Ekintza zehatz bat ez bada, baizik eta behin eta barriro gertatzen bada, prozesu zirkular baten agertzen da indarkeria, ordena berean, gitxi gorabehera.

- 1 Damu- eta adiskidetze-fasea edo ezialdia:** erasotzaileak parkamena eskatzen dau berbaz edo keinuz, eta biktimak parkatu egiten deutsu. Emakumearen sentimentuak bildurra, mina, lotsea, nahasketea, errua, ilusinoa edo konfiantzea berreskuratzea dira.
- 2 Tensino-fasea:** bizikidetza-giroan eztabaidak hasten dira, eta tensinoa sortzen da barriro. Emakumearen sentimentuak estutasuna, ansiedadea, bildurra, desilusinoa eta etsipena dira.
- 3 Eraso-fasea:** tratu txar motaren bat gertatzen da: fisikoa, sexuala, ekonomikoa, emozionala... Emakumearen sentimentuak bildurra, gorrotoa, ezintasuna, bakardadea eta bere buruagazko haserrea dira.
- 4 Aldatzeko promesa:** hartu-emonak galtzeko beldurra dau eta opariak, dirua... eskaintzen dauz. Emakumearen sentimentuak konfiantzea berreskuratzea, nahasketea, errua eta ilusinoa dira.

Intensidadea gero eta handiagoa da, eta faseen arteko denpora-tartea gero eta txikiagoa, hau da, denporeagaz, zirkulua bortitzagoa eta ohikoagoa bilakatzen da.

Indarkeria-egoerak konplejuak dira, eta ulertu beharra dago, askotan, eraso egiten deutsun bikotekide bategazko hartu-emonak bere horretan jarraitzen dabela; izan be, eraso egiten deutsun persona horrexek berak, beste une batzuetan, mimoz eta maitasunez jokutzen dau. Maitasuna erromantikoa dala irakatsi deuskue, ezkontzea helburu bat dala berez, eta bizitza osorako zeozer, onerako eta txarrerako. Menpekotasun emozionala, menpekotasun ekonomikoa, isolamentu soziala eta familiarra bizi doguz. Besteak beste, seme-alabak ardurapean eukitea eta indarkeriaren adierazpenen sotiltasuna dira bikote hartu-emonak luzatzea eta ez haustea eragiten daben kausetako batzuk, harreman horreek bortitzak izan arren.

Tratu txarrak: zer dira?

Zure bikotekideak, senideren batek edo zugaz bizi dan edo bizi izan dan personaren batek sarritan gauza honeetakoren bat egiten badau...

- »» Mehatxatu, iraindu, umildu egiten zaitu.
- »» Etxeko arazo guztien errua zuri egozten deutsu.
- »» Besteen aurrean balioa kentzen deutsu, edo eten barik esaten deutsu zure eretxiak ez daukala garrantzirik.
- »» Ardurabakotasun handiz begiratzen zaitu, eta persona lez berarentzat garrantzirik ez dozula sentiarazoten deutsu.
- »» Eten barik mespretxatzen ditu zure gorputza, zure janzkerea, zure pentsamoldea edo zure zaletasunak, edo gizen edo argal zagozala esaten deutsu; motza zarala eta zure ezaugarriren bat aldatu behar dozula.
- »» Zure lagunakaz edo senideakaz harremana izatea galarazoten deutsu, edo hareekandik isolatu zaitezana saiatzen da.
- »» Gehiegizko jeltosia agertzen dau, eta zure deiak, mezuak eta sare sozialak kontroletan ditu.
- »» Gehiegi babesten zaitu, gauza askotarako bere menpekotasuna izan daizun, eta gauzak zure onerako egiten dituala esaten deutsu, eta zu lagundu eta zaindu besterik ez daukala gura.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN KASUET ARAKO BALIABIDEAK MUNGIAN

- » Beragaz ez bazagoz, bere burua aldatzea ezinezkoa dala esaten deutsu; zeu zarala lagundu leikion bakarra, eta bere arazoaren eta horren konponbidearen erantzulea zu zarala sentiarazoten deutsu.
- » Zure dirua eskuratzea galarazoten deutsu edo zure gastu guztien kontuak emotera behartzen zaitu.
- » Zuretzat balio sentimental berezia daukien objektuak apurtzen ditu.
- » Bultzatu edo jo egiten zaitu.
- » Beste herritartasun bat dozulako edo zure egoerea erregularra ez dalako bera ezin dozula salatu esaten deutsu, edo inork ez zaituala sinistuko.
- » Zure bikotekidea haserretu ez daiten, sarritan kontu handiegia izan behar dozula sentiduten dozu.
- » Sexu-harremanak izatera behartzen zaitu, harremanak non eta zelan izan inposatzen deutsu edota preserbatiborik ez erabiltera behartzen zaitu.

... Egoera honeek eten barik bizi badozuz, **tratu txarrak jasaten zabilz**. Gida honetan, egoera horretatik urtetako bidea topau zeinke.

Zu jasaten ari zarana **emakume askori gertatzen jake** gure herrialdean eta mundu osoan, hareen adina, gizarte- eta ekonomia-egoera, kultura edo nazionalidadea edozein dirala be, eta bizi diran eremua edozein dala be: ezkontza-bizilekua, guraso-bizilekua, tutoretzapeko egoitza edo egoitza instituzionala. Gainera, jakin beharra dozu zure baldintza personal edo sozialek (degaitasun bat eukitea, etorkina izatea, egoera irregularrean egotea, etab.) **tratu txarren aurrean zaurgarriago** egin ahal zaituela.

Tratu txarrak giza eskubideen urraketa larria dira. Inork ez dauka eskubiderik zu txarto tratetako, eta **ez dago hori justifikatu leikean inongo arrazoirik**. Tratu txarren erantzule bakarra horreek eragiten dituana da, **zuk ez daukazu errurik**.

Sexu-indarkeria: zer da?

Emakumeen behar bezalako baimen barik egiten diran sexu-portaera guztiak. Eraso sexualak, abusuak eta sexu-jazarpena hartzen ditu barruan.

Gogorik ez badozu, esan eizu. Ez dozu zertan zure borondatearen kontrako ezelango jokabide sexualik jasan. Ez zaitez errudun sentidu ezetz esateagaitik (lehenago baietz esan badozu be, eretxia aldatzeko eskubidea daukazu). Ezetz esan badozu eta sexu-harreman bat izatera behartzen bazaitue, ez zaitez errudun sentidu.

Lantokian jazarpena jasan badozu edo jasaten badozu, ez eizu lana itxi; jakinarazo enpresa-batzordeari, sindikatuei... bilatu frogak eta laguntza emon ahal deusuen lankideak, salatu egoerea eta eskatu laguntza juridiko eta psikologikoa.

Egoera horreei aurre egiteko neurri legalak eta baliabide sozialak dagoz.

ZURE ESKU DAGO BALIABIDE HORREEK ERABILTEKO ERABAGIA.

Gogoan euki ez zagozala bakarrik eta ez dala beharrezkoa salaketa jartea errekurso honeetara joateko, nahiz eta batzuentzat baldintza jakin batzuk bete beharko diran eta horreei buruzko informazioa jasoko dozun.

Mungian, eskuragarri dozuz askotariko baliabide profesional eta konfidentzialak, danak doakoak.

Dana dala, udalerritik kanpoko baliabideak erabiltea gurago badozu, gida honetan hareekaz hartu-emonetan ipinteko modua aurkituko dozu.

24 ORDUKO ZERBITZUAK

SOS DEIAK

Kasu guztietarako, eta, batez be, larrialdi kasuetarako.

112

**PREMIAZKO LAGUNTZA
ENTZUMEN EDO BERBA
EGITEKO DESGAITASUNA
DAUKIENENTZAT**

Larrialdi kasuetan, ikonoa sakatu besterik ez dago, aukerak erakutsiko dituan pantaila ikusteko. Intuizinoz erabiltekoa da. Lehen botoiak (112 telefonora deitu) unean bertan laguntzea eskatzea ahalbidetzen dau. Aktibetan danean, eta beti be telefonoak datu-konexinoa aktibauta badauka, 112-SOS Deiak Koordinazino Zentroak geolokalizazinoa jasoko dau GPS bidez.

**112aren app-a
deskargatu**

Google Playn
edo App Storen

ERTZAINZA

Egoitza Gernikan daukie, baina eten barik itzuliak egiten ditue Mungiatik.

Zagozan lekura joango dira (ertzain-etxera be joan ahal zara), eta beharrezko babes-neurriak martxan jarriko ditue. Gura badozu, une horretan aurkeztu zeinke salaketea. Prest zagozala sentiduten ez badozu, beste edozein momentutan egin zeinke. Ez da beharrezkoa.

94 465 34 90

**MUNGIAKO
UDALTZAINGOA**

Lehenengo laguntza emoten deutsee biktimei. Kasu batzuetan, Ertzaintza heldu arte lagunduko dabe. Esku-hartzea Ertzaintzagaz eta Gizarte Zerbitzuakaz koordinauko dabe, protokoloaren arabera, beti be zuk gura badozu.

**94 615 66 77
092** (Mungiatik)

SERVICIOS 24 HORAS

MUNGIAKO OSASUN ZENTROA

Osasun-arreta emongo deutsue Loradi enparantzako 1. zenbakian (Azokaren ondoan).

94 600 71 50

BIKTIMA DIRAN EMAKUMEEI TELEFONO ARRETA EMOTEKO EUSKO JAURLARITZAREN ZERBITZUA (SATEVI)

Eusko Jaurlaritzaren baliabidea, doakoa eta konfidentziala.

Tratu txarrak jasaten dituen emakumeei eta egoera hori antzematen dabenei zuzenduta dago. Telefono bidezko arreta psikologiko profesionala. 51 hizkuntzatan erantzuten deute deiei. Entzumen-dezgaitasuna daukien pertsonentzako zerbitzua eskaintzen dau.

Leku segurua da, eta inork ez dau jakingo bertara deitu danik, ez dau-eta telefono-fakturan arrastorik ixten..

900 840 111

TRATU TXARREN KONTRAKO ESTADUKO TELEFONOA

Bardintasun Ministerioaren genero-indarkeriaren inguruko informazioa eta aholkularitza juridikoa. Posta elektronikoko bidezko konsultak be, hemen:
016-online@igualdad.gob.es; 016-online@mmsi.es

016

UDAL BALIABIDEAK | Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

GIZARTE ZERBITZUAK

· Telefono bidezko hitzordua eskatu zeinke edo bulegora joan. Kasua premiazkoa bada, erantzuna berehalakoa da. Zugaz alkarrizketatuko dira (telefonoz edo aurrez aurre), dagozan zerbitzu eta prestazinoen barri emongo deusue, eta gizarte-langilez eta hezitzailez osotutako taldeak prozesu osoan lagunduko deustu (salaketea, ofiziozko abogadua, epaitegia, ospitalea, izapide ekonomikoak, eskolea), edo entzun eta lagunduko deusue, erabagia hartzen dozun arte.

Hemen gagoz: Aita Elorriaga 4, etxabea. Gainera, gure gizarte-zerbitzuetan honako zerbitzu honeek be badaukaguz:

94 615 55 51

EMAKUMEARENTZAKO ORIENTAZINO PSIKOLOGIKOA

Emakumeei laguntza psikologikoa eskaintzen deuten doako zerbitzua da, eta Mankomunidadeko gizarte-langileen bidez jotendabertara.

AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMAKUME ETA ADINBAKOENTZAT

Informetako, orientazinoa emoteko eta beste baliabide batzuetara bideratzeko doako baliabidea da, baina ez dau izapiderik egiten. Mankomunidadeko gizarte-langileen bidez jotendabertara.

BEHIN-BEHINEKO HARRERA ZERBITZUA

Bakarrik dagozan emakumeentzat edo hareen menpe dagozan personakaz dagozanentzat, bikotekidearen edo familiaren arloan indarkeria dala-ta babes barik dagozanentzat. Gizarte-langileek bideratzen dabe emakumea zerbitzu honetara, eta egonaldiak irauten dauen bitartean, emakumeagaz batera zerbitzu horretako lanbide-taldea egongo da.

RECURSOS MUNICIPALES

MUNGIAKO BARDINTASUN ZERBITZUA

Emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasuna lortzeko eta indarkeria matxista desagerrarazteko udal bardintasun-planak garatzen dihardu. Besteak beste, berdintasunaren eta indarkeriaren arloko sentsibilizazio-, prestakuntza- eta informazio-programak diseinatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da, bai emakumeekin, bai herritarrekin oro har, ikastetxeekin, enpresekin, gizarte-eragileekin. Zerbitzutik indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta integrala emoteko protokoloak gidatzen eta koordinatzen dira, ahalduntze- eta autodefentsa-tailer feministak antolatzen dira, eta emakumeen elkarteei eta haien ekintzei buruzko informazioa ematen da.

94 674 10 43

**Mungian Bardinetik
Bardinerako bidean**
Mungia hacia la Igualdad



BESTELAKO BALIABIDEAK | **arreta**

“TARTEKARI SAREA” ALDUNDIAREN GIZARTE LAGUNTZA AGENTEAK

Baliabide hau Mungian eskaini egiten da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzua da. Diz-Diz alkarteko bi agentek laguntza eta konpainia eskaintzen deutsee genero-indarkeria jasaten daben emakumeei, Gizarte Zerbitzuetara, Aldundiko baliabideetara edo beste zerbitzu batzuetara heltzeko.

Hareen alkarreagaz be jarri ahal zara hartu-emonetan, tailer, ikastaro eta abarretarako.

Borondatezko zerbitzua da, eta honako zerbitzu honeek lortzeko jo leiteke bertara:

BIKTIMEARI LAGUNTZEKO EUSKO JAURLARITZAREN ARRETA ZERBITZUA (BLZ)

- Laguntza psikologikora bideratu.
- Prozesu judizialaren nondik norakoei buruzko aholkua jasotea eta konpainia izatea.
- Epaketarako prestetea.
- Doako justizia izapidetzea, eskatutako baldintzak beteten badira.
- Dagozan eskubideei, legezko prozedurei eta gizarte-eta arreta-baliabideei buruzko informazioa jasotea.
- Biktimari bulego judizialeko sarbideakudeatzea.
- Zain zagozan bitartean, norbaitegaz egon...

688 826 204

900.400.028

**Barakaldo, Bilbo,
Donostia eta
Gasteizko
Justizia Jauregietan
dago.**

BESTELAKO BALIABIDEAK | **arreta**

**BEREHALAKO
HARRERA-ZERBITZUA
ETXEKO
TRATU TXARREN BIKTIMA
DIRAN EMAKUMEENTZAT
(ALDUNDIA)**

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dau tratu txarren biktimentzako larrialdiko harrera-zerbitzua. Lurralde osoari emoten deitso zerbitzua. Eguneko 24 orduetan erabili leiteke, urteko 365 egunetan.

Tratu txarren biktima dan edozein emakumeri eta bere ardurapeko seme-alabei eta helduei zuzenduta dago, baldin eta tratu txarren ondoriozko larrialdi-egoera baten eraginez etxetik alde egin behar badabe.

Baliabide honetara Ertzaintzaren bidez joko da, edozein ertzain-etxetan aurkeztuta edo 112 telefonora deituta.

**SOS DEIAK
112**

ZUTITU

Tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diranean familian esku hartzeko arreta psikologikoko programea. Emakumeen, gizonen eta adinbakoen kontrako tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioei heltzen deitso, eta indarkeria jokabideak aldatzen saiatzen da.

**94 445 07 60
info@zutitu.com**

BESTELAKO BALIABIDEAK | arreta

FAMILIA ESKU-HARTZERAKO PROGRAMA, EMAKUMEEN KONTRAKO ETXEKO INDARKERIAN ESPEZIALIZATUA (ALDUNDIA)

Bizkaiko Foru Aldundiaren programa, emakumeei esku-hartze espezializatua eskaintzeko; erabagiak hartzeko eta erasotzaileagandik aldentzeko prozesuan laguntzen deuse.

Erasotzaileagaz bizi diran emakumeentzat edo, erasotzaileagaz bizi ez badira be, erasotzaileagaz barriro bizitzen hasteko arrisku handia daukientzat (eta, hortaz, tratu txarren aurreko egoerara itzultzen diranentzat) da. Aurreko kasuan jasotako tratu txarren biktima diran emakumeen ardurapean dagozan adinbakoei be zuzenduta dago.

Emakumeak
Babesteko
eta Familiei

Laguntzeko zerbitzua

94 406 60 00

94 406 69 00

FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA, GURASOEN KONTRAKO INDARKERIAN ESPEZIALIZATUA (ALDUNDIA)

Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkerian esku hartzeko programa Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Esku-hartze Zerbitzuak eskaintzen dau, eta amei eta/edo aitei edo beste senide bizikide batzuei erasotzen deuseen nerabe eta gazteen indarkeriari heltzea proponiduten dau.

Emakumeak
Babesteko eta
Familiei Laguntzeko
Esku-hartze Zerbitzua

94 608 35 81

94 406 62 72

94 406 62 66

BESTELAKO BALIABIDEAK | ekonomikoak

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO DIRULAGUNTZAK (EUSKO JAURLARITZA)

2014ko urriaren 29ko AGINDUAN ezarritako baldintzak bete behar dira. Besteak beste, genero-indarkeriaren egoera babes-aginduaren, kondena-epaiaren edo Ministerio Fiskalaren txostenaren bidez egiaztatea.

Ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa da, egoera erregularrean dagozan emakumeentzat edo bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktimentzat. Helburua da emakumeak tratu txarren egoera horretatik urten ahal izatea eta haren independentzia ekonomikoa eta gizarteratzea erraztea. Adinagaitik, prestakuntza orokor edo espezializaturik ez izateagaitik eta gizarte-baldintzekaitik enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituen emakumeak dira laguntza honen hartzaileak.

Eskaerea emakume bakoitzak egin leike hemen:
<https://www.euskadi.eus/servicios/0082402>

edo izapidea egiten lagundu ahal deusue
Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadean,
94.615.55.51an
aurretiazko hitzordua lortuta



BESTELAKO BALIABIDEAK | ekonomikoak

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (EUSKO JAURLARITZA)

Hileko prestazino ekonomikoa da. Genero-indarkeriaren biktimak batek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzen dauenean, Lanbidek lehentasunezko tratamendua eskaintzen dau, bere egoerara egokিত.

ESTATUAREN GIZARTERATZEKO ERRENTA AKTIBOA (GEA)

Laneratzen laguntzeko Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren lankidetzak-programa da, eta 11 hilabetez hilero prestazino ekonomikoa jasoteko aukerea emoten dau. Horrezaz gain, genero-indarkeriaren biktimak bazara edo etxeko indarkeriaren biktimak bazara eta programan onartua izateko eskaerea egin aurreko 12 hilabeteetan edo programan zagozan bitartean zure bizilekua aldatu behar badozu, ordainketa bakar baten jaso ahal izango dozu 3 hilabeteko errentaren laguntza osogarria, etxebizitzaz aldatzeko.
SEPEn (Lanbideren bulegoan), bete behar dozuzan baldintzen barri emongo deusue.

Lanbide
Olalde Beresia, 3
945 160 600
630 305 452

BESTELAKO BALIABIDEAK | **ostatua**

ALOKAIRU-ERREGIMENEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK (EUSKO JAURLARITZA)

2006ko urriaren 4ko AGINDUAN ezarritako baldintzak bete behar dira.
Indarkeriaren biktima diren emakumeak alokairuko etxebizitzaren eskatzaile lez inskribatu leitekez Etxebiden, genero-indarkeriaren biktima modura.

Etxebideren
herritarrentzako
arreta zerbitzua
945 160 600
630 305 452

ETXEAN TRATU TXARRAK JASO DITUEN EMAKUMEENTZAKO EGOITZA ZENTROAK (ALDUNDIA)

Bi baliabide mueta dagoz: arreta integraleko zentroa/egonaldi ertain-luzeko harrera-zentroa eta gizarteratzeko eta laneratzeko etxebizitza.
Egoitza-baliabide honeek Bizkaian bizi diren eta tratatu txarren biktima diren emakumei zuzenduta dagoz, bai eta tratatu txarren egoera dala-ta egonaldi ertain eta luzeko bizitegi-baliabide bat behar daben hareen seme-alabei eta hareen kargura dagozan pertsonen be.
Baliabidea lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Esku-hartze Zerbitzuaren balorazinoa egin beharko da beti.

Emakumeak
Babesteko
eta Familiei
Laguntzeko
Zerbitzua
94 608 35 82
94 406 72 67

BESTELAKO BALIABIDEAK

EMAKUNDE

Emakumearen Euskal Erakundea. Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa. Sexuagaitiko diskriminazino-kasuei buruzko aholkularitza eskaintzen deute herritarrei, enpresei eta emakume-alkarteei.

945 01 67 00

